

## APARKABISAKO ZUZENDARI NAGUSIA

### Ana Belén Quijada Garrido

Carcaboson (Kazerres) jaio zen 1968ko maiatzaren 11n.

#### Prestakuntza akademikoa:

Pedagogian lizentziatua Deustuko Unibertsitatean.

Erizaintzako teknikari laguntzailea. Proba libreen deialdiaren bidez.

Psikiatriako teknikari laguntzailea. Proba libreen deialdiaren bidez.

Farmaziako teknikari laguntzailea. Proba libreen deialdiaren bidez.

Puerikultorea. Puerikultura Eskola. Bilbo.

#### Lanbide-esperientzia:

Lan arloko lehen urratsak Ekintzak Elkartean eman zituen, 1991n, kale-hezitzaile gisa.

1994an, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Leioako Laguntza Egoitzan sartu zen, erizaintzako laguntzaile gisa.

1995ean zinegotzi izan zen Barakaldoko Udalean, Gizarte Zerbitzuak, Kultura, Hirigintza Diziplina, Osasuna, Ingurumena eta Kontsumoa, eta Hirigintza arloetan erantzukizunak hartuz.

Eretza eta Usoa Tailerra Udal Sozietateetako eta Haur Eskolak Erakunde Autonomoko eta Inguralde Toki Garapenerako Agentziako Administrazio Kontseiluetako buru izan da.

2015ean Barakaldoko Udaleko Talde Sozialistaren bozeramaile bihurtu zen, Leioako Laguntza Zentroan erizaintzako laguntzaile gisa zituen lan-erantzukizunekin batera.

2020ko irailaz geroztik, C-19 infekzioen prebentzio- eta kontrol-lanak burutzen zituen.

2020ko azaroaren 26an Aparkabisa Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak erakundeko zuzendari nagusi izendatu zuen.

Gurutzeta-Barakaldoko Pse-EEko tokiko zuzendaritzako kidea eta Pse-EEko Bizkaiko Batzorde Exekutiboko kidea da.

#### Hizkuntzak:

Hizkuntzetako titulaziorik gabe, idatzizko eta ahozko ezagutza-maila ertaina du frantsesez.